

Luigi Averlarri

Tintin Euskal Herrian

Udak mendi bihurtzen du bihia, albiste bestela ez litzatekeena: Berdintasunaren Aldeko Britainiar Batzordeak *Tintin Kongon* ez saltzeko galdegin du, “arraza estereotipo zakarrak agerian” jartzen dituelako. Arrazoiek, harriaren pisua dute: “Liburuak arraza aurreiritzizko irudi eta hitz ankerrak ditu, bertako salbaiek tximuak dirudite eta ergelen moduan mintzo dira”. Liburuarentzat, aukera bakarra ikusten du batzordeak, alegia, museo batean erakustea, “astakeria arrazista eta demodea” dioen afixa handi bat duela ondoan.

Mendiak, bistan da, agerian du bihia; nabarmen garaua. Geure Tintinen bila, sarea bota dut. Arrazakeria kontuetan, ez gabilta gibel. Mexikon dela, Jean Elizalde, *Zerbitzarik*, oharra *Gure Herriako* irakurleei: “Hura begitartea! Nihun ez dute segurki lehen garhait satirik irabaziko beren edertasunarentzat! Ez da India-noak baino mozko handiagorik. Ez, Indianoeri batere ez diotet nahi. Egia da ez nukeela lehen kausituari ezpainen musurik emanen...”. Hori mexikarrak. Espainiaren inperio ahuldu-tik manumitu nahian dabil-tzan kubatarrak ez dira ederragoak, ordea. Kasu Emeterio Arrese, gure poeta errepublikano laikoari: “Mutur zapalak, ez dakizute/zer dan emen jaiotzia/ seme leialak dakin bezela/amarengatik iltzia”. Bertsotan, eta Pello Urkiolaren karikaturlara jo gabe, jatorrago, entzun dugu handiagorik.

Arrazaz landa, berriz, gura bestekoak ditugu zapalketa oihuak. Yomingo Soubelet-ek hagiografia ezin ederragoa du Petain marexalaz. Filofaxistez ari garelarik, Jon Mirandek pedofiliaren gorazarre lotsarik gabea egiten du, zoragarri egin ere. Neskatxen erabileraz gabiltzalarik, berriz, non dira emakumeak, oro har, Tintinen kongotarrak bezala, “estereotipo zakarren menpetik” libratzen...?



DANI BLANGO

Zalantzarik gabe, askotan hobe da ederretsi den obraren egilea ez ezagutzea. Borgesen ipuin zoragarriekin gozatu ederrik hartu dugunok, lerro bakoitzean izan behar dugu akorduan militarren diktadurari eman zion babesabesa? Antzeko egoeran ezagutu dut hamaika tintinzale. Pierre Assoulinek haren egileaz burutu biografia mardula, zaleena ere zapuzteko modukoa da. Assouline arabera zen Herge filofaxista, katoliko prekonziliar –Vatikanokoa barik Trentokoa, ordea–, autoritario, egolatra eta estua. Eta?

Bere garaian, Hergek berak barkamena eskatu zuen bere liburuetako askoren eduki mingarriengatik. “Inguruan nuen gizarte burgesaren aurreiritzietan edan nuen”, esan zuen. Aukera izatera, ez zituela ostera ere egingo. Hori da gutxienekoa, eta hortxe da, era berean, gakoa.

Orain dela 77 urte argitara emandako fikzio lan bat erretiratzeko galdegiteak berak ematen du gizartearen neurria. Fikzioa fikzio den heinean, bere horretan hartu beharrekoa da, ez dago besterik. Gizarte normaldu batean, izango du obrak berau ideologikoki aztertuko duenik, gaztigu etikoak egingo dizkionik. Edo editoreak konponduko du, eta ez argitaratzea erabakiko –Koldo Mitxelenak Miranderi *Egamez* “bertzela akabo aldizkaria”–, eta kito. Ibinagabeitia eta

Zaitegi, gu gehienok baino katolikoagoak biak, erresumindu ez eta geuk galdegin behar *Haur besoetakoa* erretiratzeko?

Obra bat *en effigie* erreta, kiskalia besterik ez du laztantzen gar garbitzaileak. Beste era batera esanda: *Tintin Kongon* erretiratuta, koloniazalea Herge zela uzten da agerian, baina ez da ez Belgika, ez bertako errege-erreginak, ez estatua inperio zen garaiko beste ezer jartzen zalantzan. Ezer ez da ez ezeren ondorengo ez ondorio. Horrela bada, zikin nahiago. ■

Tintin Kongon erretiratuta, koloniazalea
Herge zela uzten da agerian, baina ez da ez
Belgika, ez bertako errege-erreginak, ez
estatua inperio zen garaiko beste ezer
jartzen zalantzan. Ezer ez da ez
ezeren ondorengo ez ondorio.
Horrela bada, zikin nahiago